



Saharako Maratoia, lasterketatik haratago

/4-5

Tomas Arruti eta Gorka Lasa korrikalariak Saharako Maratoien parte hartu zuten otsailaren bukaeran. Baina lasterketako esperientzia ez ezik, Saharako kanpamenduetan bizi izandakoa ere kontatu digute haiekin izan dugun solasaldian. •



Herritar ugari bildu zen Arrieskalleta elkartearen lehengo astean burutu ziren ekintzetara; helduak krisiari buruzko hitzaldira eta gazteak bertso afari-meriendara.



Ekitaldiz betetako astea

Arrieskalleta elkartearen bazkari eta afariez gain, aisia eta kulturako ekitaldiak antolatzen direla baieztatu genuen lehengo astean. Izan ere, hitzaldia eta bertso afari merienda burutu baitziren. Egungo krisi mundiala hizpide, Iñaki Erauskin ekonomistak hitzaldia eskaini zuen asteartean. Elkartearen bildu ziren herritarrek krisiaren nondik-norokak ezagutu zituzten lasarteoriatar honi esker. Asteazkenean, berriz, *Harrobitik elkartera, elkartetik plazara* bertso afari-merienda antolatu zuen Gipuzkoako Bertsolarien elkartearen laguntzaz. Helburua gazteak bertsoetara hurbiltzea. Asmoa bete zen 40 bat lagun bildu baitziren elkartearen afari merienda egin eta bertsolari gazteen saioa entzuteran. Bertan Ane Labaka lasarteoriatarra Hernaniko eta Oiartzungo bertsolariekin aritu zen kantuan. Giro ezin hobea sortu zen eta bertan bildu zirenek asko gozatu zuten Gipuzkoako bertsolaritza harrobia osatzen duten gazte hauekin. •

Loreak Elesperen oroimenez

Froilan Elespe Lasarte-Oriako alkateordea hil zutenetik badira 8 urte. Heriotzaren urtemuga bezperan, martxoaren 19an, PSEE alderdiko kideek Elesperen oroimenezko ekitaldiak burutu zituzten. Brigitarren komentuan hamaiketako mezan parte hartu ostean, Lasarte-Oriako hilerrian lore eskaintza egin zuten. Bertan, besteak beste, Patxi Lopez lehendakariagaia, Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatea eta Iñaki Arriola Gipuzkoako Idazkari Nagusia egon ziren alarguna eta familiaren ondoan. •



KIROLA ■ 2

Xabier eta Mikel Arrutik arraun txapelketa batean parte hartuko dute Londresen

INGURUMENA ■ 6

150 kimu landatuz ospatuko da XVIII. Zuhaitzaren Eguna Lasarte-Orian

Bideo Lagunak

Betiko zerbitzua
gure
aholkularitza
onenarekin

Udaberrian ere
eskaintzak!!

TIEN 21ekin PLAN RENOVEa ez da bukatu




Xabier eta Mikel Arruti Tamesis ibaian arraunean

Estropada herrikoia burutzen da Oxford eta Cambridge arteko lehia ezagunaren aurreko astean

Ia zazpi kilometroko eremu berean aritu zen atzo Ur Kirolak Arraun Elkarteko zortzikoa

Xabier eta Mikel Arruti anai bikiak Londresen izan dira asteburuan. Atzo igandea aulki mugikorrek The Head of the River Race estropadan hartu zuten parte britaniar hiriburuko Tamesis ibaian. Ur-kirolak arraun elkarteko beterranoen bi zortzikote izan ziren, munduko beste hainbat tokitako arraunlariekin batera, estropada herrikoi honetan.



Mikel eta Xabier Arruti aurreko astelehenean Loiolan azken entrenamendua hasi aurretik.

TXINTXARRI

15 urterekin hasi ziren bi lasarteoriatarrek arraunean, Mikel 11 urtetan aritu zen Ur Kirolak elkartean eta Xabier 9 urtetan. Duela hamar urte inguru utzi bazuten ere, oraindik gaztetan egindako kirolaren arra barruan dute. Horrela, Ur Kirolak-eko erretiratutako beste arraunlari batzuekin batera Londresera joatea erabaki zuten proba herrikoi honetan parte hartzeko. Xabier Arrutik azaldu digunez, kirola gustuko dute eta bidaiaren plana egokia da. Aldiz, lehen lerroan egotea oso gogorra, egunero entrena-tu behar delako.

Orain, astean behin entrenatzen dute uretan, Ur Kirolak elkartean Loiolan, Urumea ibai ertzean, duen lokalean. "Gero bakoitzak bere aldetik egin dezala nahi duena edo ahal duena". Londresera bidaiaren aitzakiarekin astelehenero elkartu dira lehen arraunean ibilitako lagunak,

elkarrekin entrenatu eta tarteka elkarrekin afalduz. Ur Kirolak-ek lokal ederra du Loiolan, saihesbidearen azpian, eta bertan dute afaltzeko txokoa ere.

Oxford-Cambridge eremuan

"The Head of the River Race" proba Tamesis ibaian Oxford eta Cambridgeren arteko estropada ezaguna baino aste bete lehenago jokatzeko da bi unibertsitateak lehiatzen diren eremu berean. Ia zazpi kilometroko ibilbidea da baina proba herrikoi ibaia behera egiten da. Unibertsitateen artekoa, aldiz, korrontearen aurka.

Larunbatean hilaren 21ean seniorren arteko lehia jokatu zen, -Hondarribiako trainerakoak han izan ziren-, eta atzo, igandea, 22an, herrikoiaren atera ziren Urkirolak-eko beterranoen zortzikoteak. Elkarte honetako bi koadrila joan dira estropada ikusgarri honetara.

Duela bi urte joan zen lehenengo aldiz Urki-ko zor-

tziko bat probara. Iaz, Arruti anaien belaunaldikoak ere joatea erabaki zuten. Mikelek ez zuen aukerarik izan aita izatekotan zelako. Dena den, proba bertan behera geratu zen iaz zoritxarrez olatu asko zegoelako. Orduan erabaki zuten aurten berriro joan behar zirela eta Mikel Arruti ere animatu da.

Xabier Arrutik kontatu digunez, "talde pila bat ateratzen dira. Iaz larunbatean 400 bat zortziko baziren arraunean. Azken finean hemengo kros herrikoiak bezalakoa da. Zaletasun handia dago: punta puntakoak edota gazteak ateratzen dira. Arraunean ikasi berriak eta trebatuak, denak batera".

Hegazkinean joan ziren 19an eta gaur bertan itzultzeko asmoa dute. Ur kirolak elkarteko bi zortzikoaren artean

ez zen lehiarik espero, alde handia dagoelako. Arrutitarrean, duela urte batzuek arraunean elkarrekin aritutakoak bildu dira eta bestean aldiz bazen sekula arraunean aritu ez denik ere.

Mundu guztikoak

The Head of the River Race proba banku mugikorra duten zortzi laguneko ontzien artean jokatzeko da urteen arabera banatuta: beraiek 35 urte inguruko beterranoekin lehiatzekoak ziren. Alemaniarrak, kanadiarrak, estatu batuarrrak,... denetarik izaten da, mundu guztikoek hartzen dute parte.

Lehen aldiz ateratzekoak zirenez, ez daukate erreferentziarik, eta joan zirenean ez zekiten zer aukera izango zuten. Euren asmoa ahalik eta ondoen aritu eta ondoren

lasai-lasai zerbeza batzuk hartzea zen.

Eta behin aurten Londresko ezagututa hurrengo urtetan beste proba herrikoiak probatzeko gogoia ere badute, Amsterdam-go esate baterako.

Xabier eta Mikel Arruti 15 urterekin hasi ziren arraunean, Lasarteko mutil koadrila osoa joan ziren nahiz eta gerora lagun denak uzten joan ziren. Biek urte mordoak eman zituzten arraunean, beti Ur Kirolak elkartean eta zenbait aldiz egon ziren Kontxako estropadan.

Behin gainera Donostiako traineren arteko estropadan juxtu-juxtu Arraun sailkatu zen zentesima gutxiengatik. Gero denen arteko kanporaketa jokatu eta Ur-Kirolak ere sartu egun zen zortzi onenen barruan.

Gaztetan banku mugikorren aritu ziren honek ospe eta maila handiagoa zuenean. "Gaur egun Kantauri mailan banku mugikorra ez da horren ezaguna, traineren estropadek dena jan dute". •

Xabier eta Mikel Arruti, beste behin, duela 10 urte baino gehiago, Finlandian izan ziren arraunean.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Beñat Elizalde eta Leire Zubizarreta judokak Euskadiko txapelkunak dira

- Amaia Curiel eta Esteban Martinez txapelkunorde euren mailan
- Hasiberrien herriko taldea ondo aritu zen Gipuzkoako txapelketan
- Iñaki Elizalde 20 urte azpikoen artean Espainiako bosgarren izan da

LOKEko judokak herrira dominak ekartzen eta parte hartzen duten lehiaketetan emaitza bikainak eskuratzeko segitzen dute. Asteburu honetan bi urrezko domina eta beste bi zilarrezko ekarri dituzte. Larunbatean Gasteizen jokatu zen Euskadiko txapelketan, Beñat Elizalde txapelketa izan zen 23 urtetik behar-koen artean. Kadetetan Leire Zubizarreta izan zen txapelkun, eta Amaia Curiel zein Esteban Martínez bigarren. Iñaki Elizalde, aldiz, bosgarren izan da 20 urte azpiko Espainiako txapelketan.

Lasarte-Oriako judoek bere mailan onenak direla erakusten jarraitzen dute. Asteburuaren Gasteizen jokatu zen Euskadiko txapelketan Beñat Elizalde eta Leire Zubizarreta urrezko domina eskuratu zuten.

23 urtez azpiko mailan onena Beñat Elizalde dela argi ikusi zen. Borrokaldi guztiak irabazita Euskadiko txapelkun da berriz ere eta martxoaren amaieran Zaragozan egingo den Espainiako txapelketako kanporaketan parte hartzeko txartela eskuratu zuen.

Kadete mailan oso emaitza

onak lortu zituzten LOKEko borrokalariek. Leire Zubizarreta izan zen Euskadiko txapelkun hiru borrokaldi erraz irabazi eta gero. Amaia Curiel bigarrena izan zen, bi borrokaldi irabazi eta bakarra galdu-ta, Esteban Martínez bezala.

Gorka Aristegi LOKEko prestatzaileak Esteban gertatu salatu du, bere ustez hiru-

garren borrokaldia ere irabazita zuen "baina arbitroek ere parte hartzen dute. Agian noizbait gure alde ere okertuko dira". Mario Garridok ere parte hartu zuen txapelketan. Borrokaldi bat irabazi zuen eta bi galdu. Prestatzailearen iritziz, "hobeto" egin dezake.

Gasteizen jokatu zen Euskadiko txapelketako emaitzen ondoren, Alikanten maiatzaren 22 eta 23an burutuko den Espainiako txapelketarako sailkatu da Leire Zubizarreta. Amaia Curiel eta Esteban Martínezek aukera dute oraindik baina itxaron egin beharko da.

Gipuzkoako Txapelketa

Igandean, Zarautzen hasiberrien mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen taldeka eta lasarteoriatarrek oso maila ona erakutsi zuten. Lehen bi borrokaldiak erraz irabazi

zituzten eta gero txapelkun izan zirenen aurka galdu zuten.

Prestatzailearen ustez txapelketa "zoragarria" egin zuen Alex Salsamendi, Asier Zubizarreta, Haritz Urdangarin, Ander Curiel, Mikel Gonzalez, Oscar Garrido eta Fermin Baldak osatutako taldeak.

Iñaki Elizalderen iponak

Azkenik Iñaki Elizalde bosgarren postua eskuratu du Madrilan 20 urte azpiko Espainiako txapelketan. Hala ere, oso pozik agertu da Gorka Aristegi entrenatzailea Iñaki Elizaldek txapelketan egin duen lanarekin, izan ere, brontzezko domina eskura izan baitzuen. "Iñakik oso txapelketa ona egin du, bere mailarik hobereana erakutsiz, gainera. Lehenengo borrokan, andaluziar bat gainditu zuen iponez; baita bigarrena ere iponez madrildar baten aurka; final aurrekoetan Espainiako txapelkunaren aurka galdu zuen eta dominak gutxiengatik ihes egin zion eskutik," adierazi digu Gorkak. •

TXAPELKETA

Squash Txapelketa gaur hasten da

13 jokalarik parte hartuko dute XXI. Squash Txapelketa Sozialean.

Kirol zerbitzutik azaldu dutenez, txapelketak hiru fase izango ditu.

Lehenengo fasean, jokalaria talde bakarrean bildu eta ligaska-sistemaren bidez buelta bakarrean jokatuko dute.

Bigarren fasea jokatu ahal izateko lehenengo faseko partida guztiak jokatu behar direla jakitera ematen da.

Txapelkunaren faserako ligaskako lehenengo 4 jokalaria sailkatuko dira eta beste 9 parte-hartzaileek kontsolazioa jokatuko dute.

Partidak astelehenerdik ostiralera bitartean jokatuko dira, 18:00tik 20:00ra.

Partiduren bat jarritako egun eta orduan jokatzetik ez badago, tartean dauden jokalaria ados jarri beharko dira astebeteko epean jokatzeko. Aurrekoa betetzen ez bada, plazamendua eragin duenari partidua galdutzat emango zaio.

Eta gaur jokatuko dira txapelketari hasiera emango dioten bi partida Aitor Reyes-Iñaki Garcia eta Jose Antonio Ramos-Aitor Artola.

Lehenengo jardunaldia partida hauekin osatuko da: **martxoak 24, asteartea**, Alberto Udabe-Kinin Calvo eta Jose Ramon Urruzola-Diego Barrasa; **martxoak 25, asteazkena**, Iker Cañedo-Xabier Amiano eta Txema Vallés-Agustin Erkizia.

Honetaz gain, 2. jardunaldiko partidak ere jokatuko dira aste honetan. Honela, **martxoak 26, ostegun**ean Aitor Artola-Aitor Reyes eta Kinin Calvo-Jose Antonio Ramos. •

IKASTAROA

Haurrentzako igeriketa ikastaroa

Apirilaren 2tik maiatzaren 28ra, 2002-2003an jaiotako haurrentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian.

Astean hiru saio izango dira (asteartea, ostegun eta tarteka ostiraletan). Arratsaldeko 17:30ean hasiko dira saioak eta bi maila desberdin bereiztuko dira, hasiberrien maila eta erdi maila.

Izena emateko azken eguna martxoaren 26a da. Ikastaroak 143,50 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 79,70 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu behar duzue edo 943-376182 telefonora deituz eska dezakezue. •

Alikanten maiatzaren 22 eta 23an burutuko den Espainiako txapelketarako sailkatu da Leire Zubizarreta kadetea.

Zerbait ekarri dute basamortutik

■ Saharako Maratoiak eta han ikusitako guztiak arrastoa utzi die Tomas Arruti eta Gorka Lasa korrikalariei

Tomas Arruti eta Gorka Lasak Saharako maratoia egin dute duela aste batzuek. Maratoia egitea berezia da, eta are bereziagoa basamortuan eginez gero. Duela hilabete burutu zuten proba otsailaren 23an, baina oraindik ere han daude. Arrastoa utzi die kanpamenduetatik joan etorriak. Esperientzia polita izan zela esan digute. Bai lasterketa bera eta baita sahararrekin bizitako una hunkigarriak.

Amaitu PORTUGAL

Milaka gaua konta ditzakete Tomas Arruti eta Gorka Lasak Saharako Maratoiaz. Batak 3:54:03ko denbora eta besteak 3:35:11koa egin zuela lasterketan. Lurra gogorra dela eta beraz korrika egiteko egokia. Azken bi kilometroak luze egiten direla. Baina, Arrutik esan bezala, "kirola beste toki batean geratu da. Handik etortzen zara eta oraindik egun batzuetan pentsatu egiten duzu ea una honetan zer egiten egongo ote diren han geratu direnek... Zerbait egiten duzu handik".

“ 500 bat lagunek hartu dute parte, eta hedabide mordo erakarri dute. Hori oso garrantzitsua da saharar herritarrentzat

Otsailaren 20an abiatu ziren Tinduf aldera, eta 23an hartu zuten parte Saharako Maratoian. Oro har gustura bukatu zuten. "Ez genekien bidean zer aurkituko genuen, baina aurreneko 20-25 kilometroetan lurra gogorra zen. Gainera, lainotuta zegoen, eta orduan hasiera oso eramangarria izan zen", azaldu du Arrutik.

“ Afrikako estatu bakarra da non umeen %100 eskolatuta dagoen. Irakaskuntza ziurtatuta daukate”, azaldu digu Arrutik

Ezerezen korrika

Hala ere, azken kilometroetan errimoa jaitzi beste erremeridiorik ez zuen izan: "Bigarren zatian hondarra agertu zen, aldapsua egiten hasi zen, eguzkia ater... Baina esperientzia oso polita izan da".

Lasa denbora hobe egingo zuelakoan zegoen, baina hala ere oso pozik bukatu zuten.

Tarte luze batean bakarrik geratu zen basamortuan barrena korrika, eta horrek utzitako esperientzia ekarri du gogora: "Ezerezen erdian korrika nembilen. Gozatua da, kristoren esperientzia".

Eta gainera, galtzeko arriskurik gabe. Antolakuntzak eduki zehaztu zuen bidea, eta lasterketan zehar ez zuten siorokirik izan. Beraz, hondarra ez zen gehiegi harrotu.

Saharako herria

Maratoiaz beraz ari direnean ere berehala aipatu dute Saharako herria. Nola irteeran 30 bat ume kantatu egin zieten, eta zeinen hunkigarria izan zen. Nola hainbat kilometro ezertxo ere ikusi gabe egin eta gero, bat-batean emakume talde bat agertu zitzaizkien erdibidean, eta sahararren oihoa eskaini zieten.

Nola emakumeak eta haurrek ikusten zituzten edozein bide bazterretan animatzen, baina gizonezkorik ez, horietako asko militarrek edo polizia direlako edo besterik gabe lanean zeudelako agian.

Haimak, zabalik

Ez da harritzekoa sahararrek Lasa, Arruti eta beste korrikariengan utzitako arrastoa. Finean, ez dira hotel batean oporretan egon. Lasterkariak bertako familietan bizi izan dira, haien haima edo etxoletan.



Tomas Arruti eta Gorka Lasa maratoia hasi aurretik. Ibilbidea oso ondo markatua zegoela eta ezerezen korrika egin behar bazuten ere galtzeko arriskurik ez zela nabarmendu dute.



Hainbat ohiuraren lilurata etorri dira. "Hemen garai batean bezala da", azaldu du Lasa. "Ama edo amona da nagusi familian, eta besteak haien inguruan daude. Haima nagusi bat dago, eta gero seme-alabak, ilobak, lehengusuak... inguruan".

Hau da, familiako adar bakoitzak bere bizileku propioa izan arren, pare pare bizi dira eta normala izan ohi da batak bestearen etxean afaltzea edo lotara geratzea.

Horrenbestez, haien haiman joan-etorria etengabea zela esan du Arrutik, edozein ordutan: "Lotara joan arte ez dakizu oraindik zein etorri-



Euskaldunetarik batzu, Saharako bi emakumerekin.

ko den. Han ez dute ordutegirik mantentzen bazkari eta aforiekin".

Pribilegiatuak

Haien haiman, gainera, lau euskal herritar hartu zituzten apopilo. Goio Eizagirre eta Ion Diaz tolosarrak lehendik ere hiruzpalau aldiz egonak ziren bertan, eta Lasak eta Arrutik aukera baliatu zuten egonaldia haiekin batera egiteko. Lasak esan bezala, "besteekiko pixka bat pribilegiatuak izan gura. Saharara joan eta bertan lehen-dik harenanik ez dutenak beti egokitu zaien familiekin edo inguruetan ibiltzen dira, baina guk gehiago bisitatzeak aukera izan dugu". Hala, kanpamenduetan bertan eraikitako ospitale bat, ezindu psikikoentzako zentro bat eta egunkari bat bisitatu zituzten, besteak beste.

Hezkuntzak ere eman dio atzintzia Arrutiri. "Afrikako estatu bakarra da non umeen %100a eskolatuta dagoen. Irakaskuntza ziurtatuta daukate". Ezer negatiborik esatekotan, kaleetan zaborra eta txatarra pilatuta daudela aipatu du Lasa: "Zakarontzirik ez dago eta normala da, baina adibidez, inori ez zaio bururatzen gozokia jan eta papera poltsikoan gordetzea". Baina, noski, zakarontzirik ere ez dutela kontuan hartuta, birziklatzea-

ren kultura ezin barneratuta eduki: "Guk hemen nahikoa lan daukagu horrekin, ba pentsa haiek".

Hamarnaka hedabide

Aurten 500 korrikalarik hartu dute parte Saharako Maratoian. Horrek hedabide mordo erakarri du (Madrilid atera zen hegaldian 25 bat zuden), eta hori oso garrantzitsutzat jo du Arrutik: "Maratoia aitzakia ona da munduari zabaltzeko bertan zer ari den gertatzen". Saharako herriak 30 urte daramatzala erbestearen eta halamoduzko baldintzetan bizitzen, alegia, "Gogorra ez da Maratoia, gogorra han bizirautea da", gaineratu du Lasa.

Bi korrikalariok ez dira Saharako herriak hunkituta itzuli diren bakarrik izan. Hain zuzen ere, haiekin Saharara joandako beste hainbat euskal herritarrekin bazkaltzeko elkartu ziren hilaren 15ean, Lasarte-Orian bertan. Batek baino gehiagok izango du laster edo berandu errepikatzeko asmoa; Lasak eta Arruti ere badute. Eta Maratoia gogorregia iruditzen bazaie, badute maratoi erdia edo hamar edo bost kilometroko egitea, gainera. Arrutik esan bezala, "Nik kirola hemen Lasarten egiten duen edozeini esango nioke joateko. Gainera, ez daukazu zertan Maratoia egin".

Jalai
cafe bar

OGITARTEKOAK
Eskaintza zabala
prezio onenean!

Etorri eta dastatu

Kale Nagusia 67 • Tel.: 943 372760 • Lasarte-Oria

UNIBERTSITATEA BIZITZETIKO PREST!

ATE IREKIAK
etorriko zarela jakinarazi!

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
APRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata
ORATI AULA MAGNA
Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APRILAK 2 - 18:00 osteguna
IRUN AULA MAGNA
Tel.: 943 63 91 29 // loliartrabal@bidassoa.eteo.mondragon.edu

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
APRILAK 25 - 11:00 larunbata
ARRASATE-MONDRAGON AULA MAGNA
Tel.: 943 73 96 29 // bguereu@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata
ORDIZIA AULA MAGNA
Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
APRILAK 23 - 18:00 osteguna
ESKORLATZA AULA MAGNA
Tel.: 943 71 41 57 // sarera@huhezi.mondragon.edu

www.mondragon.edu/prest

MAKETA LEHIAKETA

Musika talde eta bakarlariek maketak Udalean aurkezteko azken astea dute

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festetako sailak antolatzen duen musika maketa lehiaketako bigarren edizioa martxan da.

Edozein eslotatoko taldeek eta bakarlariek parte hartu ahal dute, beti ere, modu komertzialean editatutako materiala ez badute eta musika klasikoak ez bada.

Ekimen honekin sailak udalerriko musika talde ezberdinak sustatu nahi ditu, eta, era berean, bultzada eman nahi die lanean jarrai dezaten.

Lehiaketako irabazleek 1.000 euroko saria jasoko dute dirutan. Epaimahaiak Lasarte-Oria saria ere emanango du. Hau 700 eurotakoa izango da eta hori irabazteko taldeko %50k Lasarte-Orian erroldatua egon beharko du.

Izena emateko orria Udalaren webgunean eskuratu daiteke, www.lasarte-oria.org, eta baita lehiaketaren inguruko nahi den informazio guztia ere.

Maketak, martxoaren 2tik 31ra, helbide honetara bidali behar dira, maketak@lasarte-oria.org. Epe horretatik kanpo ez dira onartuko. •

ESLEIPENA

Udalak adimen urritasuna dutenen integrazioaren alde egin du

Lasarte-Oriako Udalak eta Galant Garbitasuna S.L. enpresak lankidetzaz hitzarmena berretsi zuten astelehenean eta hurrengo hiru urtetan enpresa honetako langileek garbituko dituzte zenbait kirol instalazioa.

Galant Garbitasuna S.L. Gureak taldeko enpresa da. Bere helburu nagusia lanbideratzearen bitartez adimen urritasuna duten pertsonen erabateko integrazio soziala lortzea da.

Ana Urchueguia alkateak eta Iñigo Oyarzabal Galanteko ordezkariek sinatu zuten hitzarmenak hiru urteko iraupena du eta seira arte prorrogatu daiteke.

Garbiketa zerbitzuak bere baitan hartzen ditu kiroldegia, Michelingo kirolgunea eta trinketea, eta zazpi laguneko ekipoak eramango du aurrera. •



lazko Zuhaitzaren egunean ikasleek 75 zuhaitz landatu zituzten; lizarrak eta haritzak.

150 ernamuin landatuko dira XVIII. Zuhaitzaren egunean

■ Bi jardunaldi desberdinetan, ikastolek eta herritarrek parte hartuko dute

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Ingurumen sailak zuhaitzen garrantziaz kontzientziatu nahi du eta martxoaren 21ean ospatzen den Basotzeraren Munduko Egunarekin bat eginez, belarjardunaldi berriak eta herritarrek hezi nahi dituzten basoak zaintzeko. Horregatik, aurten ere, Zuhaitzaren eguna antolatu du.

Ingurumen sailak azaldu duenez, XVIII. Zuhaitzaren Eguna bi jardunaldi ezberdinetan ospatuko da.

Martxoaren 26an, Garaiakoetxea-Landaberri eta Sasoteta-Zumaburu ikastetxeetako ikasleek Helduen Heziketa Iraunkorrek Zentrokoekin batera parte hartuko dute.

Eta, apirilaren 7an, Euskaltegiaren eta Erretiratuen Elkartearen txanda izango da,

zuhaitzak landatzeaz gozatu nahi duten herritar guztientzat.

Landaketa

Aurreko urteetan bezala, landaketak Brunet mendiko magalean diren udal lurretan egingo dira. Bertan beste arbola batzuen artean, astigar, pago eta haritzen baso autoktonoa sortzen ari da. Aurten haritz eta urki arbolen 150 ernamuin aldatuko dira.

Jardunaldian parte hartzea gonbidatzen zaituzte Ingurumen sailak, izan ere, une atsegina pasatzeaz gain, basoen birsorkuntzan lagunduko baitu parte hartzen duen orok.

Landaketa honetan parte hartu nahi dutenek Ingurumen sailarekin harremanetan jarri daitezke KIUB-eko 943 36 16 05 telefono zenbakia bidez, astelehenean ostiralera 9:00etatik 13:00etara. •



700 sinadura txosnen lege berriaren alde

Sorgin Jaiak Batzordeko kideek lehengo asteazkenean 97ko txosnen legea aldatzearen aldeko 700 bat sinadura aurkeztu zituzten Manuel Lekuona kultur etxeko sarreran. Sorgin Jaietako kideek adierazi zuten bezala, "era honetara, herritarrek legea aldatu eta errespetu osoko bilera egiteko eskatzen diote Udalari." "Gu berriro ere zinegotziarekin biltzeko prest gaude. Orain, Udalaren erantzunaren zai egongo gara," aipatu zuten Jaietako Batzorde kideek. •

Egunero

Erakusketa

ANGEL NUÑEZ donostiarraren Paisaia begiralea argazki erakusketa ikusgai egongo da. Jalgi kafe-antzokian.



Osteguna, 26

Zinea

LA OLA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

GAZTELANIAZ



Ostirala, 27

Bideoforuma

CAMINO filma eskaini eta gero, Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeutarekin egingo da solasaldia. Emakumeen Zentro Zibikoan 16:30etatik aurrera. GAZTELANIAZ.



Zine Sozialeko azken emanaldian anorexia hizpide

EL DIABLO SE VISTE DE PRADA filma eman eta Acabe elkarteak hitzaldia eskainiko du *Anorexia* gaiatzat hartuta. Danok Kide elkarteak antolatutako V. Zinema Soziala zikloaren barruko azken emanaldia.

GAUR, HILAREN 23A
KULTURETXEAN, 17:30EAN
GAZTELANIAZ

Kontzertua

DONOSTIAKO SANTA CECILIA ABESBATAZAREN kontzertua Danok Kideren IV. Musika Topaketean barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.

Antzerkia

OHEAN antzezlanaren Glu glu taldearen esku Korrika kulturalaren barruan. Kulturetxean, 22:00etan, EUSKARAZ



Larunbata, 28

Kontzertua

AURORA PARRA sopranoak, J. PEREZ DE AZPEITIA pianojolearekin kontzertua eskainiko du. Kulturetxean, 20:00etan.

Igandea, 29

Zinea

WINX: ERREINU GALDUAREN SEKRETUA filma haurrentzat. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ



Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Etexraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etexratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Korrika 16

Korrika 16a Lasarte-Oriatik apirilaren 2an pasako dela eta, nahi duen guztiak Km-a lor dezake laguntza baten truk. Interesa duzuen talde, erakunde edo besteren batek Munteri AEK euskaltegira dei dezake edo bertara jo dezake. 943 37 28 63

Kolon minbiziaren proba

Lasarte-Oriako Osasun Zentroak eta Donostia Ospitaleak

doan eskaintzen ari dira kolonoko minbiziaren antzemateko goiztiarrerako proba bat 50 eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauei guztiei probarako gonbidapen pertsonala bidaliko zaie postaz.

Udaletik proiektu honetan parte hartzerantz animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu kolonoko minbiziaren antzemateko eta prebenitzeko.

Begirale izateko

Ttakunek udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu: 943 371448

edo mezua bidali: aisia@ttakun.com.

Etxalarrera irteera

Oinatz taldeak Etxalarrera irteera antolatu du martxoaren 29rako. Autobusa goizeko 9etan aterako da taxi geltokitik. Txartelak salgai egongo dira martxoaren 25a arte 20 eurotan (Ttakuneko bazkideak 18 eta 12 urte bitartekoak 10 euro).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txinxarri@txinxarri.info
txinxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txinxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitzak

Guk ez dugu ahazten

Zortzi urte pasa dira, martxoaren 20 batean gure lagun Froilan Eleste (laguntzat Froi) gure artetik kendu zigutenetik. Denborak orduan izan genituen lehen sentimenduak ezabatu ditu: gorrotoa, ezinikusia, amorrua; ondoren etorri diren sentimendu indartsuago, zorrotzago eta sendoek egunero-egunero zu gabe aurrera egiteko laguntza ematen digute eta mintzatzeko, adierazteko eta sentitzeko benetako askatasuna duen gizartea lortzearen alde borrokan segitzeko ere bai.

Batzuek omenaldi hauek zergatik eta zertarako egiten diren galdetzen dute eta etekin politikoaz mintzatzeko dira. Horiek argelak! Ahaztea barkaezina da: oroitzeak gure usteak sendotzen ditu, izu-ikarari zein beldurrari aurre egiten jarraitzeko laguntza ematen digu, gure askatasun falta gure egiten laguntzen digu, eta beti norbaitekin joan beharra onartzen ere bai; zuk bezala beste askok ordaindu duzuen prezioa ez ahaztera bultzatzen gaitu. Froi, aurrera egin dugula, babesa ematen zaigula eta gizarteak ulertzen gaituela diote, baina guk ez dugu hori sentitzen. Oraindik ere batzuen begirada eta mingain gaiztoak jasaten ditugu, batzuek zorionekoak bagina bezala begiratzen gaituzte, pribilegiatu gisa ez esateagatik. Zorroztasunik gabe batzuek darabilten doilorkeria edota zitalkeria horrek, min egiten badigu ere, indartu ere indartzen gaitu. Guk ez zaitugu ahaztuko.

Lasarte-Orian, 2009ko martxoaren 20an

Lasarte-Oriako Udaleko Zinegotzi Sozialisten Taldea

Hasi da Korrika 16ren atzerako kontaketa

- Martxoaren 26an izango da Korrikaren aurkezpena: musika, bertsoa, dantza, moda desfilea,...
- Korrika martxoaren 26an abiatuko da Tuteratik eta apirilaren 2an pasako da Lasarte-Oriatik

Hiru egun barru hasiko da Tuteran 16. Korrika eta apirilaren 2an, igaroko da Lasarte-Oriatik. Baina mokadu bezala, martxoak 26a eta 27an ekitaldiak antolatu dira herrian. Hauen guztien berri izateko Olatz Urdanpilleta AEKko zuzendariarekin hitz egin dugu.

TXINTXARRI

Martxoak 26an, ostegunean, 16. Korrika-ko aurkezpen ekitaldia izango litzateke, arratsaldeko 19:00etan Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan. "Bertan, hasiera emateko, Edu Galardi eta Isa Fernandezek muntatutako aurreko edizioko bideoa eskaini eta aurtengo egitaraua azalduko dugu," aurreratu digu Olatzek.

Baina "aurkezpena egiteaz gain, herriko zenbait talde parte hartuko dute, dantza garaikidea, bertsolari batzuk, Jalguneko gazteak, Porrotx eta Mari Mototsek edo Xumela abesbatzak, esate baterako," aipatu digu AEKko zuzendariak.

Arropa desfilea ere egongo da noski. "AEKko ikasleek parte hartzea nahi genuen, baina jendea ez da animatzen ari. Herriko gazteak animatu dira, ordea. Gazte lokalean dabiltzan batzuk desfilean parte hartuko dute. Gu saiaturu gara. Baina ikasleei asko kostatzen zaie horrelako gauzatan parte hartzea. Aurkezpen egongo dira noski, baina ziurrenik ez dute parte hartuko. Hala ere, pentsatzen dut korrika eguneko ekitaldietan parte hartu eta haien laguntza izango dugula," esan du.

Ilusioa eta parte hartzea

Desfileko arropa gustuko duenarentzat, arropa erosteko aukera izango du aurkezpenaren ostean, "kanpoan edo bigarren solairuan oraindik ez dugu zehaztu, baina arropa saltzeko postua jarriko dugu."

"Parte hartuko duten taldeek ilusio handia dute," aipatu digu Olatzek.

"Gainera, jendea oso ongi portatzen da Lasarte-Orian. Beste herriei hitz egin eta beste trataera edo beste motibazioa bat dago euskararekiko. Nahiz eta gero hori ez hitz egin eta hitzunen artean ez den islatzen, baina bai gauzak antolatzerako orduan harrera ona dago eta gauzak egiteko predisposizio handia," adierazi du Olatzek.

Ohean antzerkia

Hurrengo egunean, martxoaren 27an, gaueko 22:00etan, antzerkia dago programatua. Maskarada taldeak Ohean antzezlana dakar Manuel Lekuona kultur etxera.

"Guk Korrikarako beti eskatzen dugu antzerkiaren bat. Aurten Udalak bere gain hartu zuen eta Korrika kulturaren barruan kokatzen da Ohean antzerkia. Gastu guzti hori Udalarena da eta hori eskertzen diogu," esan digu AEKko zuzendariak.

Eta zera atxiki du, "baina esan behar da ere. Aurkezpena ekitaldirako Udalak bere onspena eman badigu ere teknikorik ez duela jarriko eta teknikoek guk ordaindu behar diegula eta horrek gastua suposatzen duela guretzako."

Dirulaguntzak

Korrika eguneko ekitaldiak ia prestatu daitezke aurreratu digu. Hauek ordaintzeko Lasarte-Oriako AEK duen diru bilketa sistema ere azaldu digu Olatzek.

"Batetik kilometroen eros-



Duela bi urte, adin guztietako herritarrek eraman zuten lekukoa. Guztiak ikusiko ditugu aurkezpen ekitaldiko bideoan.

keta dago. Lasarte-Orian 8 kilometro dira, baina ez dira kilometro osoak izaten, taldeek parte hartzen dituztelako. Orain arte ez dugu arazorik izan horiek betetzeko eta egun daudenekin moldatzen gara. Hala ere, beste inork kilometrorik egin nahiez gero, moldatu eta listo. Inori ez zaio ezetzki esaten eta ez dugu inor behartzen," adierazi digu Olatzek.

Bestalde dendaz denda ere eskutitz zorroak uzten direla aipatu digu, "jendeak, nahi duenak noski, zerbait eman dezan egiten dugu. Ez da derrigorrezkoa ematea. Badakigu garai txarretan bizi gara."

Korrikari buruzko berezia

Korrika eguneko egitaraua, mapak, elkarrizketak eta gaiari buruzko berri gehiago martxoaren 30ean argitaratuko dugun TXINTXARRI berezian aurkituko duzue. •

Ohean, bi arrotzen aitorenpenak



Izen bereko film txiletar bikainetik abiatuz, Maskarada taldeak proposamen orijinal eta ausarta eskaintzen du, Unai Elorriagak egokitu eta euskaratua eta Aitor Beltranek eta Matxalen de Pedrok antzeztua, Carlos Paneraren zuzendaritzapean.

Taberna batean elkar ezagutu eta handik ordu batzuetara, gizon eta emakume batek gela hartzen dute hotel merke batean sexu gaua pasatzeko. Sexuaren ostean, haien artean kimika sortu dela ohartzen dira. Solasean hasi eta gauean zehar nahastuz doa dena. •

ASTE SANTUKO TXOKOAK

Noiz: Apirilaren 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17
Goizeko 9:00etatik 13:30ak arte.

Adina: 2tik 8 urte bitarteko haurrak
(2001-2006 bitartean jaioetakoak).

Matrikula: Apirilaren 2ra arte 943 37 14 48

Ttakun K.E. Geltoki kalea 4, Amaraun ludoteka, Ola kalea 1

www.ttakun.com aisia@ttakun.com

